

PRAKTIKETAKO "KOADERNOA"

1) SARRERA OROKORRA

Ikasleen izenak: Itxaso Estanga, Lide Aranzabe, Nadia boujemaia eta Ainhoa Aralucea
Hasierako data / Bukaerako data: 2016/09/13-2016/11/07
Landutako gaiak: Gizarte Langintzarako Teknikak Elkarrizketa Gizarte Langintzan Dokumentazioa

2) SAIO PRAKTIKOEN FITXA(K)

Data: 2016/09/13	Fitxa/Praktika Zbk. 1
Gaia: Aurkeztu beharreko dokumentazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko probintzietan kokaturik	
Saio garapenaren sintesia: Lehenengo praktika honetan, norberaren oinarrizko dokumentuak nola lortzen diren ikasi dugu, etorkizunean gure erabiltzaileek behar dituzten dokumentuak erraz lortzeko. Horretarako bakoitzak bere hiriburuan dokumentu horiek nola, non eta horiek lortzeko beharrezkoak diren beste dokumentu ezberdinak zeintzuk diren bilatu ditugu.	
Lortutako helburuak : Dokumentu, agiri eta txartel ezberdinen ezagutza, eskaera lekuak eta xehetasun gehiagoren lanketa. Oinarrizko dokumentazioa, non eta nola lortzen den, bakoitza zer den eta zertarako behar den eta horiek lortzeko beharrezkoak diren beste dokumentazioak zeintzuk diren.	
Saioaren inguruko hausnarketa: Informazio beharrezkoa dela pentsatzen dugu eta ez geneukan behar adineko ezagutza batzuen inguruan, beraz baliagarria izan da, klasea apur bat pisutsua izan arren.	

Data: 2016/09/20	Fitxa/Praktika Zbk. 2
Gaia: Elkarrizketa	
Saio garapenaren sintesia: gure etorkizuneko erabiltzaileen egoera analizatzen	

dituzten eskalak ezagutzen eta horiekin lanean aritu gara. Hasteko jakin behar genuen gizarte langintzan bi eskala osagarriak erabiltzen direla, lehenengoa Barthelena, mendekotasun maila neurtzen lagunduko diguna eta bigarrena Zarit eskala, zaintzaileraren zamari dagokiona. Klaseko hainbat pertsona hautatu ziren erabiltzailearen papera egiteko. Hauei, gutun bana banatu zitzairen pertsonaiaren papera azalduz. Besteok gizarte langilearen papera egin genuen (udalekoak eta foru aldundikoak alderatuz), bi inkestatan oinarritutako elkarrizketa bat gauzatu genuen erabiltzaile bakoitzarekin eta amaieran, ondorioak atera eta denon artean elkarbanatu genuen emaitza. Bukatzeko bien elkarrizketaren alderaketa egin dugu eta kalkuluak atera ditugu, ze mailatan zeuden jakiteko.

Lortutako helburuak: Gizarte langilearen paperean jartzea lehenengo aldiz eta kasu desberdinak aztertzea, galdetegien bitartez. Bestalde, bi eskala hauen erabilera ezagutzeaz gain gizarte langile gisa elkarrizketak zelan garatuko ditugun jakitea izan da.

Saioaren inguruko hausnarketa: Entretengarria izan zen, lehenago ez genuen horrelako ariketa praktikorik egin eta konturatu ginen elkarrizketa hori ez zela erreza, aurretiko plangintza baten beharra dagoela. Orain arte teorikoki besteaz hitz egin badugu ere, gaurkoan beste horren paperera pixka bat hurbildu gara bai tratu egokia zelan egin jakiteko baita bere sentipenetan sartzeko ere. Gainera gure burua gizarte langile baten eguneroko aktibitate bat izan daitekeena egiten jarri dugu eta modu horretan gure ahulezia edo indar-guneak zeintzuk diren ere ikusi ahal izan ditugu.

Data: 2016/09/27	Fitxa/Praktika Zbk. 3
Gaia: Genograma	
Saio garapenaren sintesia : Genograma zertan datzan eta nola egiten den azaldu zigun irakasleak. Familia baten adierazpen grafiko bezala definitu dugu, sinbologia propioa daukana eta erabiltzailearekin esku hartzea egitea du helburua. Gero, praktikara eramateko Los Simpson familiaren adibidea aukeratu eta arbelean bete genuen denok batera.	
Lortutako helburuak : Genograma nola egiten den ikastea bai modu teorikoan esku hartze honen erabilera eta modu praktikokoan zelan diseinatu eta familia gaiaren inguruaren konplexutasunaz jabetu eta aipatu dugun aniztasuna hobeto ulertzea.	
Saioaren inguruko hausnarketa: Eramangarria izan da eta ulertzeko erraza. Genogramaren sinbologiaren konplexutasunaz ohartu bagara ere, lan egiteko irakasleak hartu duen jarrera oso egokia izan da ahalik eta modu onenean datuak asimilatzeke. Teknika honi dagokionez, saio praktikoetan garatzen ikasi genuen, oinarritzat teoriarik emandakoa hartuz. Genograma egiten ikasteaz gain, gure familiaren inguruko informazioa eskuratu genuen, orain arte ezezaguna izan dena. Genograma familiako arazo ezberdinak identifikatzeko erabili ohi da, horrela erabiltzailearen	

egoera, testuingurua eta jatorria hobeto ulertu ahal izateko. Guk bagenuen praktika honen inguruko ideiarene bat, baina ez osatua. Esperientzia eskasa dugunez, ez dakigu zein puntutaraino den erabilgarria genograma errealitatean baina zertxobait aberasgarria izan da.

Data: 2016/10/4	Fitxa/Praktika Zbk. 4
Gaia: Elkarrizketa, arrera	
Saio garapenaren sintesia : Gizarte langilea eta erabiltzailearen arteko lehenengo hartu emanak egiten diren bideo ezberdinak ikusi ditugu. Ondoren elkarrizketa hauen esanguratsuak diren ezaugarriak aztertu genituen, amankomunean ezarriz.	
Lortutako helburuak : Elkarrizketa batean gizarte langileak erabiltzailearekin izan dezakeen jarrera ezberdinak ikustea. Ezaugarri txikien (adb harrerako tonua) garrantziaz ohartzea. Komunikazioaren atalak edo motak berezitu eta interpretatzen jakitea eta gu geuk hausnartzea eta praktikan jartzen ikastea gure egunerokotasunean.	
Saioaren inguruko hausnarketa: Saio eramangarria izan da, adibideak oso argiak izan dira eta ulertzeko erraztasuna eman digu horrek.	

Data: 2016/10/11	Fitxa/Praktika Zbk. 5
Gaia: Elkarrizketa, prozesua	
Saio garapenaren sintesia : Bi bideo ezberdin ikusi genituen, non erabiltzaileek euren arazoa altzen zieten gizarte langileei. Erabiltzaileak hartzen zuen jarrerari jarri genuen atentzia, zergatik joan zen bertara eta zein zen bere jarrera arazoa azaltzeko garaian. Fitxa bat bete dugu, fitxan gizarte langile eta erabiltzailearen ezaugarri batzuk agertzen ziren (G.L -aren izaera, harremanetarako trebetasunak, elkarrizketaren kontrola; Erabiltzailearen jarrera; Elkarrizketako prozesua -harrera, galderen egokitasuna, bukaera- zelan eman diren; Eskaeren -zergatia, argitzea, hitzez hitzezko eskaera; elkarrizketen helburua; erabilitako printzipioak eta beste elkarrizketaren beharra) eta taldetan hausnarketa bat egin dugu.	
Lortutako helburuak : Erabiltzaile bakoitza ezberdina dela, eta bakoitzarekin berarentzat egokiena den moduan lan egin beharko dugula konturatzea.	

Saioaren inguruko hausnarketa: Saio baliagarria izan da, bideoetan kasu praktikoak ikusteak erraztasuna ematen digu erabiltzaile ezberdinak izan ditzakeen jarrerak ikastean.

Data: 2016/10/11	Fitxa/Praktika Zbk. 6
Gaia: Elkarrizketa	
Saio garapenaren sintesia : Bi bideo ezberdin ikusi genituen, non erabiltzaileek euren arazoa azaltzen zieten gizarte langileei. Erabiltzaileak hartzen zuen jarreran jarri genuen atentzioa, zergatik joan zen bertara eta zein zen bere jarrera arazoa azaltzeko garaian.	
Lortutako helburuak : Elkarrizketa baten prestaketa egiteko datu egokiak zelan lortu, lehenengo edo beste elkarrizketa bat den desberdinduz. Elkarrizketaren harrera zelan egin ikasi, konfiantzazko giroa sortu, aurkezpenak zelan egin, markoaren azalpena edo eskaeraren aurkezpena. Modu praktikoan elkarrizketa garatzea.	
Saioaren inguruko hausnarketa: Saio baliagarria izan da, bideoetan kasu praktikoak ikusteak erraztasuna ematen digu erabiltzaile ezberdinak izan ditzakeen jarrerak ikastean.	

Data: 2016/10/11	Fitxa/Praktika Zbk. 7
Gaia: Elkarrizketa	
Saio garapenaren sintesia: Paperean elkarrizketa bat irakurri genuen, R.jauna eta Gizarte Langile baten artean. Ondoren fitxa bat bete genuen taldeka elkarrizketako faseak identifikatuz eta barneratuz. Fitxa horretan bertan 2.elkarrizketa baten prestakuntza ere egin genuen R.andrearekin elkartuko bagina bezala. Klasearen amaieran bi antzezpen egon ziren harrerako atala antzeztu zutelarik R.jaunaren elkarrizketa talde atek eta R.jauna eta R.andrearen elkarrizketa bestetik.	
Lortutako helburuak : Elkarrizketa teknikaren modu berri baten ezagupena eta teoriarik emandako elkarrizketaren faseak praktikan islatzea.	
Saioaren inguruko hausnarketa: Saioa ondo egon da, hala ere bideo bidez gauzak argiago ikusten direla ohartu gara eta idatzizko elkarrizketa batean gauza batzuk alde egin dezaketela. Gu antzerkiaren partaide izatea ere interesgarria izan da benetako	

sentsazioak nolabait ikusi ditugulako.

3) LABURPEN-FITXA (k)

Landutako gaia

Gizarte Langintzarako Teknikak

Erlazionatutako praktikak

1,2 eta 3.

Gaiaren garrantzia gizarte langintzan

Gizarte zientzien barruan kokatzen dugu gizarte langintza, beraz beste gizarte zientziekin ere teoriak eta teknikak konpartitzen ditugu. Bi ideia azpimarratzea garrantzitsu ikusten dugu: bilakaera metodologikoa oso paraleloa izan da eta ikerketa ekoizpena oso pobrea izan dela gure diziplinan. Bigarren honetan jarri izan den aitzakia, profesionalki izan duen praktikotasuna izan da eta horrek ekartzen duen berehalakotasuna izan dira.

Zientzia denez, berezko metodo zientifikoa eta objektu propioa dauka. Hainbat definizio topatzen ditugu gizarte langintzari buruz, eta teknika bezala bi helburu bereizten ditugu; errealitatea aztertzea alde batetik eta errealitate hori eraldatzea bestetik. Bi helburu hauek lortzeko hainbat teknika ditugu, aztertzea oso garrantzitsua da horretarako harrimintak desberdinak erabiliz, baita mundu hori eraldatzeko tresnak ere.

Azkenik, teoriaren eta praktikaren arteko etengabeko elkarriketaren beharra funtsezkoa da. Marko teorikoak eta kontzeptualak guztiz beharrezkoak dira gure eguneroko jardutean aplikatu ahal izateko. Kontuan izan behar dugu dena moldagarria dela beraz teoriak edo teknikak ez dira guztiz finkoak eta errealitateari moldatzeko gai izan behar dira.

Hausnarketa orokorra

Edozein lanbide bere teknikak ditu zientifikotasun izaera garatu ahal izateko, beraz Gizarte Langintza zientifikotasun maila hori lortzera begira bere teknika propioak garatu ditu. Teknika hauek, erabiltzailearengan, kasuarengan esku hartzea egiterako orduan kontuan hartu beharrekoak dira: Elkarriketa, behaketa, etxeko bisita, izanik ere hauen erabilera praktikoak -adierazpen grafikoak, lekuan lekukoak- dutelarik. Ezaugarri bezala dinamikoak izango dira erabiltzaileari moldatu ahal izateko.

Teknika hauek beharrezkoak dira langilearen oinarri batzuk finkatzen dituztelako eta horien arabera funtzionatuko dutelako.

Alde eroso bat du, egoera eta helburuen arabera teknika bat, bestea edo bi aldi berean erabili ahal ditugu erabiltzaileari laguntzeko eta arazoari ahalik eta hobekien aurre egiteko. Teknika horien azken helburua, informazioa lortzea da.

Landutako gaia

Gizarte Langintzarako Elkarrizketa

Erlazionatutako praktikak

4, 5, 6 eta 7

Gaiaren garrantzia gizarte langintzan

Elkarrizketaz ari garenean komunikazioa aipatu behar dugu. Auzi bat topatzen dugu, ongi komunikatzea jaiotzetik daukagun edo gizartean garatzen ditugun abildadeak diren. Gizarte langintza ezin da ulertu harreman bat existitzen ez bada eta harreman hori garatzeko komunikazio funtsezkoa da. Honetan gizarte langile eta erabiltzailearen arteko harremana azpimarratzen dugu.

Elkarrizketa batean ezinezkoa da ez komunikatzea, modu orokor batean gertatzen den bezala, ulertzen dugu dena komunikazioa dela eta isiltasuna egonda ere hori mezu komunikatibo bat ere dakar. Elkarrizketa batean komunikazio mota desberdinak aurkitzen dira.

Hausnarketa orokorra

Gizarte langintzan komunikazioa funtsezkoa da, horregatik, gizarte langileak komunikaziorako trebetasunak landu behar ditu. Erabiltzailea ulertzeko gaitasuna landu behar du, batez ere, norberaren trebetasun eta arazoak ezagutu behar dira. Hau emateko elkarrizketa bezalako teknika beharrezkoa eta erabilgarria da.

Esan behar da, teknika honi dagokionez teorian eman ditugun ideia gehienak saio praktikoetan islatu direla eta hau oso baliagarria gertatu zaigula errealitatean ikusteko. Gainerako saioekin ere erlazio zuzena du, izan ere saio guztietan erabiltzaile eta gizarte langilearen arteko lehenengo elkarrizketak landu ditugu, saio bakoitzean honen atal eta elkarrizketa modu ezberdinak ezagutuz.

Saio hauek baliagarriak izan zaizkigu, elkarrizketa teknika zertan datzan ikasteko, bere funtzio eta helburuez ohartu gara. Gainera ikusi dugu erabiltzaileen artean aberastasun handia dagoela eta bakoitzeko jokatzeko modu ezberdina duela, horregatik gizarte langileok ezin dugu erabiltzaile guztiekin orokortasun bat erabili, bakoitzak behar ezberdinak baititu.